

BIZIKIDETZA LANTZEN

BAKE, BIZIKIDETZA ETA GIZA
ESKUBIDEEN UDAL POLITIKAK
SUSTATZEKO FORU PLANA
2018/2019

LEGE GORDAILUA: SS-831-2018



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. Sarrera | 5 |
| 2. Helburua | 7 |
| 3. Koordinazioa | 9 |
| 4. Bost printzipio bost konpromisotarako | 11 |
| 5. Udalekiko lankidetzak | 13 |
| 5.1 Bizikidetza sustatzeko elkarrizketa esparruak | 14 |
| 5.1.1. Ordezkaritza politikoen artekoa | |
| 5.1.2. Herritarren foroak | |
| 5.2 Bizikidetza lantzeko sustapen eremuak | 15 |
| 5.2.1. Giza eskubideen kultura sustatu | |
| 5.2.2. Kultura politiko demokratikoa sustatu | |
| 5.2.3. Biktimak eta memoria | |
| 5.2.4. Gizarteratzea | |
| 6. Gizarteratzea | 17 |
| 6.1 Udalei zuzendutako diru laguntza deialdia | 18 |
| 6.2 Mikroekintzak | 18 |
| 6.3 Proiektu pilotu edo esperimentalak | 18 |

1

SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, urteetan, bakea eta bizikidetza programak bultzatu ditu, zuzenean edo udalei zuzendutako diru laguntzen bitartez.

ETAren behin betiko su etenaren ostean, 2011ko urriaz geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundia eta udalek bizikidetzara bideratzen dute beren lana, modu integralean ekinez gatazka armatuaren, terrorismoaren eta indarkeriaren ondorioei.

2016ko urtarrilean, ordura arte egindako lanaren balorazio prozesua egin ondoren eta lurraldeko udalek egindako ekarpenak kontuan hartuta, **Bizikidetza Lantzen, bake, bizikidetza eta giza eskubideen udal politikak sustatzeko foru programa** aurkeztu zen.

Bi urteko ibilbidearen ondoren, beharrezkoa zen Planaren balorazioa egitea eta, batez ere, egungo behar eta aukeretara egokitzea.

2016. urtean aurkeztutako Bizikidetza Lantzen programaren helburu nagusia, Zuzendaritzarena ere badena, hau da: bakea betiko eta modu atzerazinean finkatzen laguntzea, gizartea bizikidetzara bideratzen laguntzea eta Gipuzkoako kultura demokratikoan sakontzen laguntzea, gizartean giza eskubideen ezagutza eta begirune kultura sustatuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako programei eta laguntza deialdiei esker, lurralde osoan 24 bizikidetza prozesu abiarazi dira, prozesu horietan dugun konfiantza berretsiz. Bidelagun ugari izan ditugu, pertsona eta entitateak, erraztatzaile lanetan aritu diren elkarte eta norbanakoak, udaletako ordezkari politikoak eta herritarrak. Lan apala izan da, jarraitua, parte hartu duten pertsonen protagonismorik gabe egindakoa. Orain, lan hori hausnarketa prozesuan jasotako ekarpenekin aberastu nahi dugu, eta, noski, balioan jarri. Bizikidetzaren alde konpromisoa hartu duten gipuzkoar horien guztien lana eskertu eta balioan jarri nahi dugu.

Bizikidetza Lantzen programaren balorazioak ekarpen ugari izan ditu, neurri handi batean programa berrian barneratu direnak. Hala ere, bi ondorio edo ekarpen nagusi azpimarratu behar dira: prozesuaren baliagarritasuna eta beharra, eta etorkizunera begira kultura politiko demokratikoan inbertitzeko dugun beharra.

2

HELBURUA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoak bost helburu estrategiko jasotzen ditu. Horien artean, herritarren arteko elkarbizitza finkatzea; horretarako, Kultura Politika eta Demokrazia Sakontzeko egitasmoa abiarazi genuen.

Bizikidetza Lantzen helburu eta programa horien barne kokatzen da. Eta, bereziki, helburu nagusi bati erantzuteko sortu zen, hau da, ***bakea betiko eta modu atzerazinean finkatzen laguntzea, gizartea bizikidetzara bideratzen laguntzea eta Gipuzkoako kultura demokratikoan sakontzen laguntzea, gizartean giza eskubideen ezagutza sustatuz.***

3

KOORDINAZIOA

Lankidetza eta koordinazioa, bereziki **udalekin eta udal horietako arduradun politikoekin**. Programa hori bere sorreran, indarkeriak utzitako ondorioei aurre egiteko aurkeztu zen, azken hamarkadan lurraldean hasitako bizikidetzarako prozesuei jarraipena eta bultzada emateko.

Lankidetza ere herritarrekin, gizarte eragileekin eta gatazkak konpontzeko prozesuetan eta bizikidetzan ibilbide eta eskarmentu handia duten pertsonekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu honen lidergoa hartu du, baina lidergo partekatua izatea ezinbestekoa da, herri bakoitzaren erritmoak eta prozesuak errespetatuz. Horrela, parte hartu duten eta parte hartzen duten udalek **bat egin dute Bizikidetza Lantzen programaren helburu nagusiarekin eta konpromisoekin**, lurraldean **bizikidetzaren aldeko aliantza** eraikiz.

Gurea ez da ekimen isolatu bat. Herri ikuspegitik egin dugu lan, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan. Era berean, kontuan hartu da Bizikidetza Lantzen programa eta programa horretatik eratorritako laguntza deialdiak osagarriak izatea Eusko Jaurlaritzaren planekin eta deialdiekin.

4

BOST PRINTZIPIO BOST KONPROMISOTARAKO

Giza Eskubideak: giza eskubide guztiak pertsona guztientzat, eta oinarria den giza duintasunaren defentsaren konpromisoa. Giza eskubideen urraketa bakar bat ere ez aitortzea eta justifikatzea: iraganean, orain eta etorkizunean.

Biktimak: biktima guztien eskubideekiko konpromisoa. Salbuespenik gabe eta berdintasun eta ez bazterketaren printzipioaren pean, egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko eskubideei erantzutea.

Memoria: iraganarekin kritikoa den memoria demokratiko batekiko konpromisoa. Elkarrizketan oinarritutako memoria partekatua, bizikidetzari begira, biktimen sufrimenduarekin solidarioa dena eta irmoa giza eskubideen aurkako eraso oren salaketarekin.

Kultura demokratikoa: kultura politiko demokratikoa sustatzeko konpromisoa. Herritar askez, espiritu kritikoa dutenez, desberdintasunak aitortu eta onartzen dituztenez, gatazkak indarke-riarik gabe konpontzen dituztenez eta erantzukizun partekatua beren gain hartzen dituzten herritarrez osatutako lurraldea.

Gizarteratzea: presoan gizarteratzearekiko konpromisoa. Lege printzipio eta printzipio humanitarioetan oinarritutako kartzela politika berri bati babesa ematea, eta legeak aurreikusten dituen gizarteratzeko prozesuei eta birgaitzeko neurriei laguntzea.

5

UDALEKIKO LANKIDETZA

Udalekin partekatzen dugun lankidetza bi mailatan banatzen dugu: alde batetik, bizikidetza sustatzeko elkarrizketa esparruak; eta, bestetik, bizikidetzan eragiteko plan honetan lehentasunezkoak ditugun sustapen eremuak.

5.1. Bizikidetza sustatzeko elkarrizketa esparruak

Elkarrizketa politikoa ezinbestekoa da bizikidetza lantzeko, beharrezkoa da ideologia ezberdinak ordezkatzen dituzten udal ordezkarien arteko akordioak lantzea motibazio politikoa izan duen indarkeriaren ondorioei aurre egiteko eta etorkizunean kultura politiko demokratiko sendoa duten udal ordezkarien lidergoa sustatzeko. Era berean, elkarrizketa eta kultura politikoa sakondu behar dira herritarren artean, herritar kritikoak, jarrera politiko demokratikoa dutenak eta beren herrien bizikidetzarekin konpromisoa hartzen dutenak.

5.1.1. Ordezkaritza politikoen artekoa: udalean ordezkariak duten sentsibiltate ezberdinen arteko elkarrizketa eta akordioa sustatzeko. Udal bakoitzak, bere antolaketa eta aukeren arabera, forma emango dio elkarrizketa bideratzeko organoari, batzordeari edo mahaiari.

5.1.2. Herritarren foroak: ibilbide eta ikuspegi anitza duten pertsonen arteko elkarrizketarako foroak. Mahai horiek garrantzitsuak dira bizikidetza lantzeko eta eztabaida demokratikorako. Hala ere, ez dute herri ordezkariak duten ardura ordezkatu, beraien lana lagungarria eta osagarria da.

5.2. Bizikidetza lantzeko sustapen eremuak

5.2.1. Giza eskubideen kultura sustatu

Giza eskubideen ezagutza, gatazken kudeaketari buruzko formazioa, emozioen kudeaketa, bai hezkuntza formalean, bai ez-formalean, herritarren foroan parte hartzen duten herritarrei edota ordezkari politikoei zuzenduta. Udal esparruan giza eskubideak sustatzeko ekimenak bultzatu eta lagundu, bereziki bakearen kulturaren ingurukoak.

5.2.2. Kultura politiko demokratikoa sustatu

Herritarren eta ordezkari politikoen kultura politikoa sendotu. Eztabaida politikoa era demokratikoan landu. Kultura politiko demokratikoa eta bizikidetza sustatzeko ekimenak abiarazi.

5.2.3. Biktimak eta memoria

Udalak dituen eskumenen baitan, tokiko azterketa egin, biktimei eta eraildako biktimen familiei buruzkoa, biktimek egia, justizia eta erreparaziorako duten eskubidea kontuan hartuta.

Memoriaren lanketa partekatua egin, biktimentzako errespetuzkoa dena, demokratikoa eta ez-justifikatzailea. Garrantzia eman behar zaio memoria eraikitzearen prozesuari, bizikidetzara bideratutakoa izan dadin, non sufrimendu guztiak kontuan hartuak izango diren.

Memoriari buruzko ekitaldietan batasuna eta adostasun politikoa landu.

5.2.4. Gizarteratzea

Presoen gizarteratze prozesuei babesa eman udalen eskumenen barruan.

6

LAN ILDOAK

Gipuzkoako udalerrien errealitatea ezberdina da, aukerak, adostasun politikoak eta errealitateak ezberdinak dira herritik herrira. Hori dela eta, lankidetza modu ezberdinak proposatzen dira.

6.1. Udalei zuzendutako diru laguntza deialdia

Urteroko diru laguntza deialdien bidez urteko ekintza plana aurkezten duten udalei zuzendutakoa. Deialdi honetan parte hartzeko ezinbestekoa litzateke udal ordezkari politikoaren arteko elkarrizketa sustatzeko mahaiari, batzordeari edo foroetan Bizikidetza Lantzen planaren baitan planteatzen diren sustapen eremuak lantzea.

6.2. Mikroekintzak

Urteko planik ez, baina bizikidetzaren inguruan ekimen puntualen bat garatu nahi duten udalek Foru Aldundiak beren eskura jartzen dituen mikroekintzaren bat martxan jarri dezakete (eranskinean).

6.3. Proiektu pilotu edo esperimentalak

Era berean, plan honek aukera ematen du planean bertan garatutako esparruren batekin zerikusia duten proiektu pilotuak abiarazteko.



BAKERAKO ETA ELKARBIZITZARAKO MIKROEKINTZAK TOKIKO MAILAN (2018 ETA 2019 URTEETAN)

ERANSKINA



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 1. Elkarbizitarako eta adiskidetzarako forum antzerkia..... | 7 |
| 2. Forum Antzerkia balio etikoak eskolan sustatzeko..... | 8 |
| 3. Gatazken gauzatze etikoari buruzko ikastaroa..... | 9 |
| 4. Konpromiso pertsonala eta soziala adiskidetzarekin. Ikastaroa. | 10 |
| 5. Elkarbizitzaren adiskidetzeari buruzko ikastaroa | 11 |
| 6. Elkarbizitarako oinarrizko prestakuntza hezkuntza erreferenteentzat | 12 |
| 7. Jardunaldiak eta mahai-inguruak bakearekin eta elkarbizitzarekin zerikusia duten gaien inguruan ... | 13 |
| 8. Zinema Foruma bakeari eta elkarbizitzari buruz..... | 14 |
| 9. Herritarren partaidetzako lantegiak: world kafe eta open space | 15 |
| 10. Guztion bidean gerturatzen..... | 16 |
| 11. Memorialabera sarrera | 17 |
| 12. Tokian tokiko Glencree lehen pausoa | 18 |

ERANSKINA

Eranskina

Bakerako eta elkarbizitzarako mikroekintzak tokiko mailan (2018 eta 2019 urteetan)

Hauek dira Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako udalen eskura jartzen dituen mikroekintzak:

1. Elkarbizitzarako eta adiskidetzarako forum antzerkia.

Lan eremua: Sentsibilizazioa.

Azalpena: "Eta zu zer?" forum antzerkiaren proiektuaren bidez Donostia 2016 kultura hiriburuan parte hartu zen.

Helburua zelarik elkarbizitza eta adiskidetzea sustatzea egoera politiko eta sozial honetan, proiektuak topaketa gune bat izan nahi du eta aukera bat gure elkarbizitzan sakontzeko. Hausnarketarako gune bat, hiru gairen inguruan: Zer gertatu da eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Zer egin behar dugu etorkizunean ere gerta ez dadin? Zapalduaren Antzerkiaren eskolak zabalduak bidean aurrera, antzerki hizkuntza metodo pedagogikotzat eta errealitate soziala ezagutzeko eta eraldatzeko modutzat hartuta, ikusle pasiboa egile eta aktore aktiboa bihurtzen da, lehenik antzezlan batean eta gero, agian, bere errealitatean.

Hartzaileak: 16 urtetik aurrera.

2. Forum Antzerkia balio etikoak eskolan sustatzeko.

Lan eremua: Sentsibilizazioa.

Azalpena: Forum antzerkia arrakastaz antolatzen den metodologia da, bereziki gazteen artean. Eskolan balio etikoak sustatzea da ikastetxeetan harrera onena duen gaia eta gehien eskatzen dena; izan ere, bullyinga eta eskolako jarrera bortitzak prebenitzeko baliabide bat da.

Hartzaileak: 12 urtetik gorako neska-mutilak.

3. Gatazken gauzatze etikoari buruzko ikastaroa.

Lan eremua: Prestakuntza.

Azalpena: Prestakuntza-hausnarketa ikastaroa gatazken aurrean ditugun jarrerak eta erantzunak aztertzeko, bi formatutan: bi ordu eta erdi edo lau ordu.

Proiekturik onenak, batzuetan, blokeatu egiten dira gatazketan. Ezin dira saihestu, baina ikasten dute inertzia aldatzen eta alderdi etikoa hautatzen.

Hartzaileak: 18 urtetik gorako edonorentzat. Interesgarria da agintari publikoentzat, administrazioako langileentzat eta herritarrentzat oro har.

4. Konpromiso pertsonala eta soziala adiskidetzearekin. Ikastaroa.

Lan eremua: Prestakuntza.

Azalpena: Lau orduko prestakuntza-hausnarketa ikastaroa euskal gizarteak bizi duen egoera berriaren gainean.

Bost hamarkadaren ondoren, bakearen zikloa zabaldu da. Garaia da "bestea" etsaiaren paradigmapean ikusteari uzteko eta besterik gabe bizilagun gisa hartzeko. Aldaketa bat eskatzen du, ez soziala bakarrik, ez pertsonala bakarrik, baizik eta pertsonala eta soziala eta soziala eta pertsonala. Ikastaroak baldintzak sortu nahi ditu mentalitate aldaketa horretarako.

Hartzaileak: 18 urtetik gorako edonorentzat. Interesgarria da agintari publikoentzat, administrazioko langileentzat eta herritarrentzat oro har.

5. Elkarbizitzaren adiskidetzeari buruzko ikastaroa.

Lan eremua: Prestakuntza.

Azalpena: Lau orduko prestakuntza ikastaro bat eskaintzen du bere "Izan Proposamena"ren gainean. Helburua da hausnarketa bat sustatzea: zer den lehentasuna bizitzarako eta elkarbizitzarako heziketan, mahaigainean jarrita izan Proposamenaren hipotesia: lehena da geure burua hezte eta pertsona izaten hezte. Irakasleekin eta gurasoekin lantzen da. Proposamenak hezkuntza maila desberdinetarako edukietan aplikatzeko iradokizunak gehitzen ditu.

Hartzaileak: Irakasleak, gurasoak.

6. Elkarbizitarako oinarrizko prestakuntza hezkuntza erreferenteentzat.

Lan eremua: Prestakuntza.

Azalpena: Lau orduko prestakuntza ikastaro bat eskaintzen du bere "Izan Proposamena"ren gainean. Helburua da hausnarketa bat sustatzea: zer den lehentasuna bizitarako eta elkarbizitarako heziketan, mahai gainean jarrita Izan Proposamenaren hipotesia: lehena da geure burua heztea eta pertsona izaten heztea. Irakasleekin eta gurasoekin lantzen da. Proposamenak hezkuntza maila desberdinetarako edukietan aplikatzeko iradokizunak gehitzen ditu.

Hartzaileak: Irakasleak, gurasoak.

7. Jardunaldiak eta mahai-inguruak bakearekin eta elkarbizitzarekin zerikusia duten gaien inguruan.

Lan eremua: Partaidetza. Sentsibilizazioa.

Azalpena: Azken hamarkadetan, eskubideak urratu dira, eta eztabaida sozialetik gertatzen zenari buruzko hausnarketa partekatua lapurtu da. Komenigarria dirudi elkarbizitzari buruzko eztabaida berreskuratzeko espazioak sortzea, tabu eta aurreiritzien gainetik, giza eskubideen errespetuaren markoan. Aukerak eskaintzen dira herritarrek hausnartu dezaten gai horien inguruan testuinguru batean non jarrera desberdinen arteko elkarrizketa eta giza duintasunarekiko errespetua izango baitira elkarbizitzaren ardatzak. Jardunaldiak eta hitzaldiak izango dira, hainbat formatutan eta hainbat gairi buruzkoak: guztiak bakearekin eta elkarbizitzarekin eta euskal kasuarekin zerikusia dutenak.

Hartzaileak: Herritarrak oro har.

8. Zinema Foruma bakeari eta elkarbizitzari buruz.

Lan eremua: Partaidetza. Sentsibilizazioa.

Azalpena: Zinema ahalmen didaktiko handiko tresna da talde guztientzat. Azken urteetan, dokumental eta ikus-entzunezko baliabide interesgarriak egin dira, foruma eta lantegi parte-hartzaileak garatzeko bakearekin eta elkarbizitzarekin zerikusia duten gaietan. Lantegi edo ziklo bakar bat izan daiteke.

Hartzaileak: Herritarrak oro har.

9. Herritarren partaidetzako lantegiak: world kafe eta open space.

Lan eremua: Partaidetza.

Azalpena: Herritarren partaidetza, oro har eta bereziki elkarbizitza politikoarekin zerikusia duten gaietan, nabarmen kaltetu da. Beharrezkoa da aukera berriak ematea elkarrizketarako, begirunetik eta aitortpenetik, herrietako auzoen artean. Bi metodologiarekin: world kafe eta open space, elkarrizketa horiek sustatzeko eta pertsonen ideiak sortu eta biltzeko gai jakin baten inguruan, ezinbesteko lehengaiak izango direnak beste ekintza batzuk sortzeko. Zenbait talderekin egin daiteke eta interesgarria izan daiteke elkarbizitzako proiektuak abiarazteko lehen ekintza gisa, bereziki herritarrak sartu nahi badira bertan.

Hartzaileak: Herritarrak oro har.

10. Guztion bidean gerturaten.

Lan eremua: Partaidetza.

Azalpena: Herritarrekin 2 saioko prozesu bat garatzen da non aldez aurretik adostutako gai batzuen inguruan dinamika eta planteamendu ezberdinetan sakonduz hausnarketa partekatua ahalbidetzen den.

Saio bakoitzak bere dinamika propioa dauka helburu zehatzei egokiago erantzuteari begira baina denetan elkarri entzutea, ideiak partekatzea, bizipenak plazaratzea daukate oinarri. Oinarrizko egitasmoa egokitu eta 2 saioko prozesua burutuko litzateke eta bakoitzaren luzera 1,5 ordukoa izango da.

Gaiari gerturatzeko lehen pausu gisa planteatzen dugu.

Hartzaileak: Herritarrak orokorrean

11. Memorialabera sarrera.

Lan eremua: Partaidetza

Azalpena: Memorialab memoria sozialaren inguruko herritarron laborategiak dira; memoriaren eraikuntza soziala pertsona ezberdinen (leku eta ideologia ezberdinetakoak) artean egiteko asmoz.

Elkarrizketarako eta topaketarako egitasmoa da, indarkeria politikoaren eta giza eskubideen urraketen inguruko bizipenak partekatzeko. Laborategi hauetako parte-hartzaileek, biolentzia politikoa (terrorismoa, tortura eta abar) eta herritarren arteko elkarbizitzaren alterazioen (enpatia falta, dehumanizazioa, erlazio sozial eta familiartekoen haustura, isiltasuna, beldurra, eta abar) inguruko esperientzia pertsonalak konpartitzeko aukera izango dute.

Herritarrekin 4 orduko saio bat garatzea da proposamena non partaideen hausnarketa eta elkarrizketa oinarri diren. Dinamika esperimantal batzuen bidez, bizitakoaren inguruko gure ikuspegiak hausnartzeko aukera ematen digun barnetegi-laborategia da, espazio zaindu eta seguru batean ospatzen delarik.

Saio bakarra eta 4 ordu jarraian eginez burutzen da.

Hartzaileak: Herritarrak orokorrean.

12. Tokian tokiko Glencree lehen pausoa.

Lan eremua: Partaidetza.

Azalpena: Indarkeria politiko eta terrorismoak eragindako biktima ezberdinak Irlandako Glencree bitartekaritza zentroan elkartuz irenberaien bizipenak partekatzeko asmoz. Esperientzia hura oinarri harturik, tokian tokiko bizilagunekin hausnarketa gune bat sustatzea da egitasmo honen asmoa. Ekimen puntual honetan, biktima horiek eragindako ibilbidea ezagutzearekin batera, partaide bakoitzak beste herritarrekin batera, bere bizipenen inguruan hausnarketa partekatua egiteko aukera izango du.

Herritarrekin 2 saioko prozesu motz bat garatzen da non partaideen hausnarketa eta elkarrizketa oinarri diren. Bi saioetako lehenengoan, Glencree esperientziaren inguruan osatutako dokumentala ikusten da modu pausatu eta landuan. Hau da, ez da dokumental gisa ikusten baizik eta, moduz zuzenduan eta gai zehatz batzuetan sakonduaz: biktima, sufrimendua, enpatia, elkar entzuteko beharra, eta abar.

Bigarren saioan berriz, dokumentalean sortutako gaiak partaideen bizipenetan oinarritzen dira eta honela beste herritarrekin partekatzeko aukera izango dute: besteen errealitatea ezagutu eta ulertu, iritzi ezberdinak dituztenei entzun eta beraien hitz egiteko aukera izan eta indarkeriaren eraginaren eta ondorioen inguruan hausnartu.

Saio bakoitzaren iraupena 1,5 ordukoa da.

Hartzaileak: Herritarrak orokorrean eta 20-25 lagun gehienez taldeko.

